

Gerlaren gizalegea

Irati Majuelo

Slavenka Drakulic idazle esanguratsua da Kroazian zein nazioartean Jugoslaviako gerlari buruzko lan mardulak osatzeagatik, eta, ildo horretan, interesgarria da jakeitea *Sekula ez liokete euli bati hegalk kenduko* Balkanetako gatazka korapilatsua lantzen duten beste bi eleberriren ostean idatzi duela, hor katu beharra da. Horietao bat, *Han ez banengo bezala*, Amaia Apalauzak berak ekarri zuen euskarara (Pasazaita, 2018).

Drakulicek perspektiba konplikatua bati heltzen dio lan honetan; izan ere, gerla-kriminalak hartzen ditu jopuntuak. Hala, Hagako Auzitegian kriminalok epaitzerakoan azaleratutako akusazioak, galdeketa eta leku-kotzak ditu oinarri liburua, idazlea bera entzule gisa egon baitzen han. Baina horien jasotze

hutsa baino, izugarrikeriaren aurrean gizakiari pizten zaizkion galderak erantzuteko proposamen bat da liburua, horrelako gertakari mingarri baten ondoren zintzilik geratzen diren arrangurei aterabide bat bilatzeko modu bat. Hala, saiakera honen hiru galdera pisutsu gordetzen ditu bere barnean: nola irits



'Sekula ez liokete euli bati hegalk kenduko'

Idazlea: Slavenka Drakulic.
Itzultzailea: Amaia Apalauza.
Argitaletxea: Txalaparta.

daiteke gizon arrunt bat gerra-krimenak egikaritzera? Nola eraikitzen da auzokoaren aurkako gorrotoa? Eta, azkenik, bere buruari eta herrikideei zuzenduta: zergatik geratu ginen isilik?

Lehen pertsonan bizitako guda da eta halaxe adierazten du idazleak, ondorioz, bizipen eta anekdota pertsonalek garrantzi handia hartzen dute epaiketetan jakinarazi ziren datu, akusazio eta ardurez gain. Erantzunak bilatzerakoan, ongia eta gaizkia bereizten saiatzean, idazlearen moralak paper garrantzitsua hartzen du. Izan ere, Drakulicek argi markatzen du gerrak izan zituen zio eta norabideetatik aldentzen dela. Alabaina, ez da neutrala, akusatua arabera, idazlearen ahotsak tonu-aldaketa nabarmenak jasaten baititu; bereziki gogorra da Serbiako lehendakari ohiaren eta haren emaztearen kasuan; erraietatik ateratzen den erra hauteman daiteke lerro artean. Kontrara, hiletak egin bai baina halakorik suertatzerik nahi ez zuen soldaduaeren kasuan, kontakizun literario baten itxura hartzen du testuak. Beraz, liburuan zehar, zenbaitetan, galdera

sortzen da: zer egin zuen idazleak gerra bitartean? Non kokatu zen? Nondik idazten du? Zerk baldintzatzen ditu bere hausnarketa moralak?

Esango nuke azken kapituluak azaltzen duela idazlearen xedea eta interesgarria litzatekeela irakurraldia handik hasia, gakoak baita saiakera bere osotasunean ulertzeko. Gerlaren deshumanizazioari gizatasunetik begiratze ko hautua egiten du idazleak, eta, beraz, agerikoak dira talkak, baina baita interesgarriak ere: mendialdeko arrantzale xume batek bere eskuz 200 herrikide hiltzen amaitu bazuen, gure gisako jende arrunta izanik, gauza bera egiten buka genezake guk ere? Psikologia indibidual eta kolektibora hurbiltzen da arrazoi bila, eta iriaketaz zilegia da guztiz. Hala ere, zenbaitetan testuinguru politiko-sozialean gehiago arakatzeko beharra sumatzen da.

Azkenik, bereziki eskertzekoak dira itzultzailearen oharrak, gatazka eta pertsona bakoitza kokatzen laguntzeaz gain, liburua idatzi zenetik gaur arte egondako aldaketak azaltzen baititu, bertso eguneratuago bat eskainiz.



'Xabiroti'. 61. zenbakia

Egilea: Askoren artean.
Argitaratzailea: Ikastolen Elkarte.

Xabiroti aldizkariaren urriko zenbakian argitaratu dituzte Adur komikigilearen *Etxean* uso istorioa, Garbiñe Ubedak idatzi eta Belatzek marraztutako *Main-gua*, Unai Gaztelumendiren *Xabiroti xtreme* eta Unai Iturriagaren eta Sanviren *Haur besoetako*-ren hirugarren albumeko azken atala, besteak beste.



'Luminiszentek'

Idazlea: Igone Mariezkurrena.
Argazkilaria: Irantzu Pastor.
Argitaletxea: Farmazia Beltza.

Igone Mariezkurrena kazetariak eta Irantzu Pastor argazkilariak Palestinako, Indiako, Lakotako eta Euskal Herriko 63 emakumeren bizipenak eta erretratuak jaso dituzte *Luminiszentek* liburuan, haien testigantzen bidez «indarkeria ikusezinak» argitara ateratzeko asmoz.



'Asterix eta grifoa'

Idazlea: Jean-Yves Ferri, **Marrakilaria:** Didier Conrad. **Itzultzailea:** Maddalen Arzallus. **Argitaletxea:** Bruño - Salvat.

Asterix bildumako 39. albuma argitaratu berri dute, hamazazpi hizkuntzatan. Amets batekin hasten da western itxurako abentura hau; protagonisten bidaia bat egin beharko dute Europa ekialdera, arriskuan da goen herri bat salbatzera.

Ezohiko atsegina

HAUR ETA GAZTE LITERATURA
Imanol Mercero

Claude eta Morino pertsonaiekin egindako bigarren komiki hau azal gogorkeoa da, tamaina ertainekoa (23x18 cm) eta 96 orrialde dituena. Bost kapitulutuan banatuta dago, eta badiu hitzaurrea eta epilogoak ere. Luzea dirudien arren, autonomia irabazten ari diren irakurle hasiberriek jada gozatzeko moduko obra da, helduoi ere zer eskainia duela ahaztu gabe.

Morinoren urtebetetze egunean gertatzen da akzioa. Ospakizunak berezi egingo duen uda eguna ez da, ordea, inork pentsatu bezalako izango. Gertakariak etengabe ezusteak eragingo dizkiete protagonistei, baita irakurleoi ere. Ez dago ezer aurreaterik.

Istoriok kontatzen duenez aparte, kolorearen erabilerak ha-

rritzen du (lehen zenbakiari buruz berdina esan daiteke): maiz siluetak besterik ez daude objektuak eta lekuak bereizteko, dena kolore bertsuko masa handitan agertzen delako, salbu eta nabarmendu nahi dena, huraxe beste kolore batzuekin eskaintzen delako. Gainera, salbuespenak salbu, ez da kolore primarioak erabiltzen.

Ezagun du egile heterodoxo baten lana dela hau. Goza ezazue berarekin, haurrek bezainbat.



'Claude eta Morino'

Idazlea eta ilustratzailea: Adrien Albert.
Itzultzailea: Bego Montorio.
Argitaletxea: Astiberri.

Nire buruan zaude...

HAUR ETA GAZTE LITERATURA
Imanol Mercero

Azal gogorreko liburu ertaina da (24x19 cm), 64 orrialde dituena eta, ohitura berririk lagun, eleberririk grafikoa etiketarekin agertzen dena egilearen webgunean. Egia esan, liburu hibridoak iruditu zait, komikiaren ezaugarriak nagusi izanik ere, album ilustratuarenak ere badituelako, hala nola orrialde osoko irudiak, koskarik gabekoak.

Haur literaturan behin eta berriz agertzen den gaia da amesgaiztoa, tarteka emaitza bikainekin, hala nola Mercer Mayerren *Amets Gaizto nire armairuan* eta Anthony Browneren *Kezkamuxelak* saritu bezain goraipatuetan. Bi horien parean jartzeta igual askotxo da, baina *Tigreia amesgaiztoaren kontra* komikiak da-

goeneko sari pare baten merezimendua jaso du.

Tigreren kasuan amesgaiztoak lagun ikusezinaren rola jokatu du batik bat, baina baita ametsen zaindaria ere, amesgaizto «kanpotarrak» uxatzeko ardura bere gain hartuta. Korapilota sortzen da inoiz ez bezalako amesgaizto bat agertzen denean... Aspektzeko, gure Tigre txikiak garai-penerako gako hitzak zeintzuk diren asmatu beharko du.



'Tigreia amesgaiztoaren kontra'

Idazlea eta ilustratzailea: Emily Tetri.
Itzultzailea: Jon Muñoz.
Argitaletxea: Astiberri.